



Altuna eta Urrutiak ezin izan dute San Miguel eta Ezkurraren aurka

AMEZKETA ▶ 40 eta 24 galdu zuten atzo Galarretan, Binakako Faustino Txapelketa

EZINTASUNA ▶ Aurkariaren sakeak eta abileziak tokiz kanpo utzi zituen Altuna I.a eta Urrutia ▶ 7



Imanol Altuna, atzo, Galarretan, Binakako Faustino Erremonte Txapelketako finalean. ARGAZKI PRESS



NAIARA GARZIA

Pilota Eskolakoak «bikain» Nafar Jokuetan

LEITZA ▶ Atzo jokatu zituzten bost partidetatik hiru irabazi zituzten leitzarrek; «maila ona» izan zela azpimarratu dute ▶ 6

TOLOSALDEA ▶

Iñaki de Juanaren alde konzentrazioak Adunan eta Villabonan

100 lagun baino gehiago bildu ziren bi herrietan, egoera salatzeko ▶ 6

TOLOSALDEA ▶

Sahararen Aldeko III. Euskal Karabana

Hilaren amaierara arte egongo dute ▶ 5

ZOS

soinu ikastaroa

Informatika musikala (Cubase)
Grabaketa eta masterizazio profesionala
P.A. eta monitoriak
Eta aber

943 65 35 35

www.soinlek.net

UZTURRETIK ▶ FELIX IRAZUSTABARRENA

'Eman hitza herriari!'



Abiadura Handiko Trenaren inguruan erreferenduma egiteko firmak biltzen aritu dira Alegian. Informazioa zabaldu eta galdeketa egiteko lehen pausoa da, eta besteak laster emango dira. Partaidetza Batzordea hasia da horretarako lanean.

Kuriosoa da, herritarrek bere iritzia zein den galdetzeko eskaera egin behar izatea. *Eman hitza herriari!* Itsasondan Udalak egin berri du galdeketa, eta emaitzen ondoren (% 44ak bozkatu zuten eta horietatik %88ak ezezkoa eman) Arantxa Tapia Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailburuordeak «legitimoa omen da propaganda moduan, baina hori ez omen da kontsulta bat» esan zuten. Propaganda? *Eman hitza herriari!* Denek erabiltzen duten leloa da.

«Funtsezko aldaketa egin nahi dene-

an herritarrei iritzia eskatzea politikaren eta demokraziaren eskakizuna da» EAJren webgunetik ateratako esaldia da. Beste gai batetaz ari da noski, eta dirudenez ez du honetarako balio. Edo AHT egitea ez da erabaki demokratikotant sartzen, edo gure ingurua eta bizimodua aldatuko duen 6.000 miloitik gorako gastua ez da funtsezko aldaketa. Beno ba... ez bada azaldu beharko digute. *Eman hitza herriari!* lelo bat da. Izate demokratikoaren ontzia gidatu behar lukeen lelo behar luke ordea, eta ez lelo

hutsa, slogana, publizitate kanpaina. «Esan bai AHTri» zioen horietako batek. Baina, non esan daiteke bai? Edo ez? Propaganda. Hitza bera garrantzitsua izan da euskaldunen artean, behintzat kultura nagusiki ahozkoa zenean. Hitza, batena zein bestena, emateko eta betetzeko. Orain hitzarmenak idatziz egiten direnean indarra galdu duela dirudi.

Nik ere sinatu dut, eta badut gogoan AHTren inguruan aldeko eta aurkako arrazoiak entzuteko eta emateko, baina gaur Hitzakoek emandako aukera baliatu nahi nuen hitzari berari garrantzia emateko. Aurrerantzean ere idatziko nuela hitz eman nien, beraz saiatuko naiz betetzen.

KOMIKIA ▶

GORKA SALABERRIA



▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldecohitz.a



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

DATUA ▶



15.000

euro. Laskorain Ikastolak antolatuta eta lbarrako Misio Taldea, Sahara Bizi Tolosaldea Sahararekin elkarte eta Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuaren laguntzarekin burutu duten Gabonetako Merkatu Txikian 15.000 euro baino gehiago bildu dituzte, iaz baino 2.300 euro gehiago. Diru hori, Emaus Fundazioaren lbarratik Misio Taldea eta Sahara Bizi Tolosaldea Sahararekin taldeen esku geratuko da, hauek Ekuadorren eta Saharan dituzten proiektuak laguntzeko. Laskorain Ikastolak azaldutakoaren arabera, «aurtengo parte-hartzea oso zabala izan da: guztira, 150 dendarik hartu dute parte, arduradun gisa, 60 guraso, irakasle eta ikasle ohi aritu dira eta laguntzen, berriz, 140 ikasle. Eskerrik beroenak guztiei!»

TOLOSALDEKO HITZA.INFO ▶

Noiz hasten zara Inauterietako mozorroa prestatzen?

Inauteriak asko gustatzen zaizkit! Noski tolosarra naiz, eta hori horrela izan ohi da. Zailena mozorroa aproposa pentsatzea izaten da, horrek denbora asko eman dezake, edota segituan etortzen zaizu burura. Behin pentsatuta, mozorro hori zuk egin dezakezun edota, denda batean erosi behar duzun edo jostunen batek egin behar duzun izaten da kontua. Beraz, egokiena azkar ibiltzea izaten da, izan ere, azken unean bazabiltza, ea norik egiten dizun! Gabonak bukatzerako pentsatua izan behar duzu zertaz mozorrotu behar zaren aurtengo Inauterietan. Eta mozorroaz gain, konpartsa edo plataforma batekin atera behar baduzu askoz ere lehenago hastea komeni da, lan handia eskatzne baitu horrek.

GORKA ▶ TOLOSA

Ba, egia esan nik bizpahiru egun lehenago prestatzen dut mozorroa. Etxean hasten naiz begiratzen armairuetan garai bateko arropetan-eta. Normalean arropa horiekin zerbait okurritzen zait, eta gainera, mozorrotzerakoan sekulako arrakasta izan ohi dut.

MIKEL ▶ IBARRA

Gehienontzat azkeneko momentuko gauza dela mozorrotzearena iruditzen zait niri. Egun konkretu baterako pentsa dezakezu astebete lehenago baina hainbeste egun dira non eguerdi partera hasten garelako bilatzen trapu zaharrak etxean edota ganbaran. Garrantzitsuena paperean sartzea da, denok galtzen ditugu

urte guztian gordetako grinak eta ederki pasatzen degu giroak mozkortzen baikaitu! Earki pasa denoi!

NI NEU ▶

Niri ere asko gustatzen zaizkit Inauteriak eta irrikaz egoten naiz itxaroten ea noiz iristen diren! Aurtengoak ere laster iritsiko dira. Mozorro egokienak nire ustez nire kabuz egiten ditudanak izaten dira, ederki pentsatuak, benetan grazia egiten dutenak, eta bi trapurekin osatu osatu duzuna.

ARANTXA ▶ TOLOSA

Justua iruditu al zaizu Abel Barriola Binakako Txapelketatik at geratzea?

Lau t'erdian jokatu zuen txapelketa ikusita, sinesgaitza. Eman al dute azalpen sinesgarririk? Ze txantxullo egon liteke erabakiaren atzean?

JULIAN ▶

Ez zait inolaz ere erabaki zuzena iruditu. Ikusi berri dugu Lau T'erdiko Txapelketan eman duen maila, beraz, nire ustez, txapelketa horretan ere lehiatu beharko luke. Gainera, gaur egungo pilotariak ikusita, Martinez de Irujorekin batera bera dagoela punta puntan esan beharra dago. Aupa Barriola!

SEBAS ▶ LEITZA

Niri egia esan pilota ez zait gehiegi gustatzen, baina ikusi dut Barriola fin aritu dela parte hartu duen azken txapelketan eta Binakako honetan ere egotea gustatuko litzaidake.

ELI ▶ LEITZA

GUTUN@K ▶

Amarotzeko jaiotza

Urtetik urtera, Amarotz auzoko bizilagun talde bat arduratzen da, norbere lanak banatuak dituelarik, jaiotzako pertsonaiak eta sartzen joan diren elementu berriak zainitzeaz eta mantentzeaz, Eguerberrietako egunetan ipintzeko egoera ahalik eta egokienean egon daitezen.

Ez da lehendabiziko aldia

Noski, ekintza hauek beti gaeuz egiten dituzte. Horrekin pentsatu nahi dugu ohi-ko *gauetako komandokoek* burutzen dituztela ekintzok etxerako bidean direnean parranda eder bat bota eta gero.

Badakigu ekintza horiek egiten dituztenek, burutzeko une horietan ez direla konturatzan izan ditzaketen eragin txarrez, izan ere, tradizio bat bizirik mantentzeko asko gara lan egiten dugunok eta



(baina bai espero dugu azkena izatea) jaiotza honetan, Gernikako Arbolan jartzen den jaiotzako pertsonaiak agertu direla. Beste kasu batzuetan, Amarotz auzoko jaiotzako pertsonaia edo elementu batzuk izan dira beste leku batzuetan agertu zirenak, Lizartzan pasa den urtean agertu zirenean bezala.

Kasu honetan, aurtengo Eguerberrietako egun batean, Amarotz auzoko jaiotzako hiru pertsonai Amarotzeko futbol zelaian agertu ziren. Beste bi pertsonai, berriz, desagertu egin dira azkenean.

denbora eta diru bat eskaintzen dugunak jaiotza mantentzeko; eta hori guztia, Eguerberrietako egunetan gaztetxoek nahiz helduek Amarotz auzoko jaiotzaz goza dezaten.

Beraz, eta ekintzaile horietakoren batek lerro hauek irakurriko dituelakoan, edo behintzat, norbaitek hortik botata gure jaiotzako pertsonaiak ikusi baditu, eskatzen diegu mesedez jar daitezela kontaktuan Amaroako Auzo Elkartearekin edota auzoko edozein bizilagunekin. Asko eskertuko genuke.

JOXE SAGASTIBELTZA (AMAROZKO AUZO ELKARTEA) ▶ TOLOSA

hitza

Harpidedunen txokoa

Egin zaituz harpidedun!

HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuz zure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratu dute; deitu 902 82 02 01 telefono zenbakira

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA

honetekin
TOLOSA • Tel.: 943 67 22 44

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

Avalon
osagaia k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

MUGAR
Nafarroa etorb, 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
ONINAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

DANTZA ▶

Aurten 50 urte beteko ditu Udaberri Dantzari Taldeak. Urtean zehar egiteko hainbat ekitaldi ari dira antolatzen eta horren berri izango duzue aurrerantzean, baina urtea hasteko, taldearen bi sortzaileekin mintzatu da HITZA, biak apaiz sakramentinoak garai hartan JOXEMI SAIZAR

XALBADOR GARMENDIA ▶ SORTZAILEA

«Poztu egiten naiz Udaberri Dantzari Taldeak jarraitu egiten duela ikusita»

Cruzada Eucaristican ibiltzen ziren mutikoekin sortu zuten lehen taldea

Xalbador Garmendia (Zaldibia 1932) 10 urte zituenetik aurrea sakramentinoen artean ibiltzen bere ikasketak egiten, 24 urterekin Tolosara etorri eta 25ekin sortu zuen Udaberri Felix Galdonarekin batera. Urtean itzultzaile eta zuzentzaile gisa aritu ondoren, erretiratu bizi da eta eskaltzaina da. **Nola osatu zenuten taldea?** Cruzada Eucaristican ibiltzen zen jendeaz baliatu ginen taldea sortzeko, parrokiako auzo-etako mutikoak bilduz: Juan Ramon Vicente, Tomas Arriola, Amaroako Fermín, Txaramako Ijurko eta beste bi, Paco Gorriti, Iñaki Marcos, Otezabal... Hamar urte inguruko 10-12 mutiko izango ziren. Neskak nola sartuko ziren bada, komentatu batean? **Non biltzen zineten?**

Sakramentinoetako frontoia- ren gaineko pabilioietan. Aste- an behin edo bitan, ez dakit. Batzuek batzuetan huts egiten zuten eta ni zorrotza izaten nintzen horretan. **Sakramentinoen laguntza izan zenuten, beraz.** Gregorio Labaka legorretarra zen superiorra orduan eta uz- ten zigun. Ordu arte dena ado- razioa, eukaristia, kustodia eta hostia santua zen sakramenti- noetan. Batzuen artean dena euskaraz egiten genuen, eus- kaltzale amorratuak ginen. Ba- ziren erdaldunak ere. Fraile- ren batekin istiluk izan ni- tuen, dantzariak zirela eta ere bai, baina orokorrean laguntza jaso genuen, traba handirik ez ziguten jarri. **Eta haiei erakusteko?** Jose Ramon Yarza eta Juanjo

Mendizabalengana jo genuen. Haiek zekiten guztia erakutsi zuten eta gero utzi egin zuten. Donostiako Goizaldi taldeko- engana joan nintzen eta Alfon- so Gandiaga eta beste bat hasi ziren etortzen. Motoz joaten nintzen beraien bila tren gelta- kira. Zerbait kobratzen zuten —hamar duro uste dut—, bai- na ez dakit nondik ateratzen genuen diru hori. **Zein izan ziren lehen txistula- riak?** Hasieran pianoa joko nuen be- harbada, dantzak ikasteko. Gero, Juan Inazio Elosegi eta Ramon Urruzola izan ziren le- hen txistulariak. **Gogoan al dituzu egiten zeni- tuzten dantzak?** Zagi dantza, Agurra, makil dantzak, Otsagiko dantzak... Dantza ximpleak.

Jantziak nork egin zituen?

Juan Ramon Vicenteren ama aipatu behar da. Arropa guz- tiak berak josten zituen. Eta emanaldi guztietara joaten zi- ren bera eta senarra. Izugarri lagundu ziguten.

Lehen emanaldiak non izan ziren?

Lehena sakramentinoetan Eucaristico batera joan ginen Ormaiztegiara. Tolosako zezen- plazan eta plaza Berrian ere dantzatu genuen, Donostian Goizaldi taldeko haurrekin an- tzoki batean, Alegian, Orendai- nen... Ordizian auresku txap- elketa batean parte hartu ge- nuen, oso ondo gainera gure ustez, baina saria bertakoek irabazi zuten.

Noiz arte egon zinen talde- an?

J. SAIZAR

1962an utziko nuen, lauzpa- bost urte eginda edo. Maulera joan nintzen zazpi urtez eta gero sakramentinoetatik atera egin nintzen. Elosegi eta horien esku gelditu zen taldea. Gari- kanok, Artetak eta horiek jar- raitu zuten gero.

Geroztik harromana mantendu al duzu?

Urte batzuk kanpoan egin ni- tuen, baina tarteka etortzen nintzen eta poztu egiten nin- tzen eta naiz taldeak jarraitu egiten duela ikusita. ◀

FELIX GALDONA ▶ SORTZAILEA

«Garai hartako euskal giroa bultzatzeko sortu genuen Udaberri»

Izena herria «esnatzen bezala» hasi zelako jarri ziotela gogoratzen du apaizak

Tolosako sakramentinoetan urte gutxi egin zituen Felix Gal- donak (Arroa, 1930), 1957tik 1961era, baina bere fruitu bat hor jarraitzen du: Udaberri Dantzari Taldea. Sakramenti- noetatik atera egin zen, baina apaiz jarraitzen du eta Donos- tiako Gros auzoko Asperso el- kartean ari da lanean. **Nola iritsi zinen Tolosara?** Arroako hiru mutiko —Imanol Uranga, hil zen Engracio Izagie- rre eta ni— sakramentinoetara joan ginen ikastera gure herri- ko Jose Mari Nuñez sakramen- tinoarene bidez. Ikasketetako lehen bost urteak, batxil- er bezalakoak, eta bi urte nobiziad- oia Tolosako seminarioan egin ge- nituen eta profesatu ondoren Areatzan (Bizkaia), bi urte filo- sofia eta lau urte teologia. Iaz

egin nuen 50 urte meza eman- nuela. 1957an Tolosara joan nintzen. Berehala egin nindu- ten Cruzados Eucarísticos-en zuzendari. Gazteekin lan egi- ten genuen: eukaristiaren in- guruan bildu, hilero meza, Txaramako eta Amaroako es- koletera joan, festa txiki ba- tzuk, irteerak, mendira, antzer- kiak... Taldea hortik sortu zen. **Nola bururatu zitzaizuen dantzari taldea sortzea?** Euskal Herria pixka bat bizi- tzen bezala hasia zen eta eus- kal giroa bultzatzeko sortu ge- nuen Xalbador Garmendiak eta biok, han horrelakorik ez genuelako ikusten. Nire he- rrian dantzari txikiak baziren eta gustuko nituen. Tolosan, nik dakidala, ez zegoen talde- rik. Sakramentinoetan bai,

euskal sena bazen. Batez ere Casimiro Egues maisu el- duaindarrak sartu zigun sena. Hark beti euskaraz egiten zi- gun, beste batzuk ordea, ez, euskaldunak izan arren. Erri- berako erdaldun asko zegoen. **Izena nola aukeratu zenu- ten?** Gure herria esnatzen bezala hasi zelako, giro berria zeto- rrelako, udaberriak giro ona ekartzen duela eta. **Eta nola osatu zenuten tal- dea, irakasleak, entsaioak, txistulariak...?** Parrokia inguruko mutilak hartu genituen. Cruzada Euc- aristican ibiltzen zirenak, Ama- roz, Txarama, Izaskun eta in- gurukoak. Izenak ez ditut go- goan. Dantzan ez genekien eta Goizaldi dantzari taldera deitu

genuela uste dut. Eta txistula- riak ere hangoak izango ziren hasieran. Sakramentinoetako gela batean entsaiatzen ge- nuen. Gu han egoten ginen beti eta maisuak ez baziren etortzen gu aritzen ginen ikas- itako pausoak begiratzeko. **Non izan ziren lehen emanal- diak?** Bertan Korpus eguneko proze- sioan, Txaramako festetan, Li- zartzan, Tolosan... **Jantziak nondik sortu zeni- tuzten?** Zozketa batzuk egiten ge- nituen, Eguberrietako saskiak eta. Handik ateratakoarekin egin genituen lehen jantziak. **Nola bukatu zen zure harro- mana Udaberriekin?** 1961ean sakramentinoetatik atera nintzen aktibitate gehi-



J. SAIZAR

go nahi nuelako eta Segurara joan nintzen apaiz. Dantzariak bere kabuz hasi ziren. Gu ez gi- nen gehiagorako gai. Bere bi- dea hartzea nahi genuen eta asko poztu ginen indarra hartu zuenean. Pentsa, nondik nora joan zen hazi txiki hura. Segur- an beste dantzari talde bat sortu nuen eta hemengo Vi- cente nahi genuten eraman nuen. Udaberriren 40. urtemu- gan gonbidatu ninduten eta meza eman nuen. ◀

GIZARTEA ▶

7.000 kilo elikagai biltzeko erronka, Sahararen alde

Sahararen Aldeko III. Euskal Karabana martxan da; dilistak, hegaluzea, arroza, azukrea eta konpresak bilduko dituzte



3 saharar gazteko. Atzean iristen den laguntza jasotzen. i. t.

INIÑO TERRADILLOS

Abenduaren bukaeran ekin zion Sahararen Aldeko III. Euskal Karabanak, eta hilabete honen amaierara arte egingo dute bilketa eskualdeko herrietan bezala, Euskal Herri osoan. Hala, elikagai guztiak batu ostean, otsaileen aterako da karabana Sahara aldera.

Urtero bezala, ekimen honen helburu nagusia herri sahararri ahalik eta elikagai gehien eramatea da. Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpamentuetan pairatzen duten elikagai faltari aurre egiteko, ahal den neurrian. Izan ere, errefuxiatu sahararrek elikadura egoki eta orekatu batera iristeko asko falta zaie, eta egoera honek ondorio larriak ditu haien osasunean, batez ere, umeetan, haurdun dauden emakumeetan eta bularra ematen duten emakumeetan.

Sahara Bizi Tolosaldea Sahararekin elkarrekin dei egiten die eskualdeko herritarrei, saharar herriaren aldeko kanpainan parte har dezaten. Kanpai-

na honen helburuak bi dira: batetik, diru laguntzak eskuratzeko, bai La Caixaren 2100 1758 6802 0007 7750 kontu korrontean bai eta Kutxako 2101 0067 2200 1118 0866 kontu korrontean aportazioak eginez; eta bestetik, produktuak (hegaluzea, azukrea, dilistak, arroza eta konpresak) biltzeko, errefuxiatu sahararrek dauden kanpamentuetara eramateko.

Bilketa iragan abenduaren 26an hasi zen eta hilabete honen bukaeran amaituko da. Tolosaldea Sahararekin elkarrekin erronka berezi bat ere jarri du aurtengo kanpaina sendotu asmoz, eskualde guztiko herritarren artean 7.000 kilo biltzeko, hain zuzen. Oraindik egun ugari geratzen dira hilabete bukaerara iristeko eta erronak hori betetzea ez dirudi zaila izan beharko lukeenik eskualdeko biztanle kopurua aintzat hartuz gero. Norbere herriko udaletxera edo Kultur Etxera hurbiltzea baino ez da egin behar, eta guretzat hain gutxi eta sahararrentzat hainbeste esan nahi duen elikagai hori ematea.

Laskorain ere bat eginik

Tolosako Laskorain Ikastolan ere bat egin dute beste ikastetxe batzuetan bezala Sahararen Aldeko Karabanarekin. Bertan, bihartik hilaren 26ra bitarte bilduko dituzte elikagaiak *Ikasle bat, gutxienez kilo bat* lelopean. Tolosaldean 7.000 kilo elikagai biltzeko asmoa badute, Ikastolan 1.000 kilo lortzeko helburua jarri dute.

HERRIZ HERRI ▶

Hilaren amaierara arte eskualdeko herri askotan egingo dute janari bilketa Saharara bidaltzeko.

ALEGIA

Ikastetxeetan eta udaletxean. Herriko ikastetxeetan nahiz udaletxeko gizarte zerbitzuak bulegoan jasoko dituzte, hilaren 19ra arte.

ALKIZA

Udaletxean. Astelehenetik ostiralera udaletxeko ordutegian eman ahalko dira hilaren 25a baino lehen.

BELAUNTZA

Udaletxean. Hilaren 26ra arte jasoko dituzte elikagaiak.

LEABURU

Ostatuan eta udaletxean. Herriko Ostatuan nahiz udaletxean utzi ahalko dira elikagaiak.

TOLOSA

Supermerkatuetan. Consum, Maxi Eroski eta IFA supermerkatuetan utzi ahalko dira elikagaiak hilaren amaierara arte. Laskorain Ikastolan ere egingo dute bilketa.

TXARAMA

Kultur Etxean. Atari Eder lokalean edota Kultur Etxean jasoko dituzte.

VILLABONA

Udaletxean. Gizarte zerbitzuak duen bulegoan jasoko dituzte elikagaiak, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 14:00etara. Supermerkatuetara ere emateko aukera jarri dute.

GAINERAKO HERRIETAN

Kultur Etxean nahiz udaletxean. Eskualdeko herri gehienek hartzen dute parte III. Euskal Karaban. Herriko Kultur Etxean nahiz udaletxean utzi ahalko dira dilistak, hegaluzea, arroza, azukrea eta konpresak hilaren amaierara arte.



Janari bilketa Eroskin. E. MAIZ

ELI EIZAGIRRE ▶ SAHARA BIZI TOLOSALDEA SAHARAREKIN ELKARTEKO KIDEA

«Orain inoiz baino gehiago, sahararrek gure laguntza behar dute»

Urte asko daramatza sahararren alde lanean Sahara Bizi Tolosaldea Sahararekin elkarrekin. Aaiungo eskolak eraberritzeko proiektuan edota udan errefuxiatuen kanpamentuetan geratzen direnentzat aisialdi gunea eraikitzeko proiektuan hartu du parte, besteak beste, udan etortzen diren haur sahararren kanpainen ere aritzen da, eta orain Sahararen Aldeko Euskal Karabanan daude bete-betean. Elkarrekin kide den Eli Eizagirre leaburuak egun inoiz baino funtsezkoago dutela gure laguntza azaldu du.

Zergatik da bereziki aurten garrantzitsua elikagai bilketan ahalik eta janari gehien biltzea?

Urtetik urtera errefuxiatuen kanpamentuetan dauden sahararrei bideratzen zaien nazioarteko laguntza gutxituz joan da, eta hori dela eta errefuxiatu gabe ari dira geratzen. Fronte Polisariotik egoera oso larria adierazi dute, eta ahalik eta azkarren elikagaien beharra dutela. Bereziki haurrek eta haurdun dauden emakumeek beharrezkoa dute elikagaia unehotan. Arrazoi hauengatik orain inoiz baino

gehiago behar gaituzte, eta uste dut karabana hone bitartez dugula laguntzeko modu hoberrera.

Aurtengoan erreonak berezia duzue Tolosalderako?

Bai, hala da. 7.000 kilo biltzea da gure asmoa eta nahia. Guk ikusten dugu posible dela kopuru horretara iristea, eta ahal duguna egingo dugu hori horrela izan dadin. Janari bilketa abian hasi zenean 7.000 kilorekin hasi ginen, ondorengo urtean 11.000 lortu genituen, eta ondorengo urteetan jeitsiz joan zen, 5.000 hurrengoan eta 3.000 azken urtean bildu genituelarik.

Zer egin kopurua berriro ere gutxienez 7.000koa izan dadin?

Herritarrek animatu behar ditugu, eta konturatuarazi hain gutxiarekin zenbat lor daitekeen. Esaterako, Tolosako Kultur Etxean termometro bat jartzeko

asmoa dugu datorren astean, eta bertan jartzeko joango gara zenbat kilo ari garen jasotzen. Egund, Sahararen Aldeko Karabana hasi zenetik bi aste igaro direnean, 2.000 kilo inguru bildu ditugu. Ea jendeak ikusten duenean kopurua handituz doala animatzen den elikagaiak ematera.

Hilaren amaieran bukatuko da bilketa.

Bai, eta otsailaren 17an aterako da Donostiako Saharara jasotako guztia. Euskal Herria jasotzen ari den laguntzarekin, 9 kamioi betetzea posible izango da. Udaletxe batzuek eman dute diru laguntza kamioiak erosteko, eta gehiagok ere eman beharko lukete.

Diruz ere lagundu daiteke.

La Caixan 2100 1758 6802 0007 7750 kontu korrontean eta Kutxan 2101 0067 2200 1118 0866 kontu korrontean eman daitezke laguntzak. ◀

ALEGIA ▶

Helduentzako klaseak hasiko dira jubilatuen egoitzan bihar

Izen-emateko, HHI-EPAko telefonora deitu edo herriko gizarte zerbitzura

N. GARZIA

Aurten, iaz bezala, helduentzako klaseak emango dituzte Alegian. Klase hauen helburua bikoitza da: lehen ikasitako gauzak gogoratzea, alde batetik eta bi ordu lagunarte on batean igarotzea, bestetik. Klaseak bihar hasi eta martxoaren 26ean amaituko dira. Astelehenetan burutuko dira, jubilatuen egoitzan eta hainbat gai jorratuko dituzte, hala nola, euskara, erdera... Parte hartzeko udaltxeko gizarte zerbitzuetara deitu edo HHI-EPAko telefono zenbaki ra: 943 67 26 60.

TELEFONOAK ▶

Larrialdia. ((112))
Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaroako dispen.: 672637
- ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdia)
- ▶ **DYA:** 672536
- ▶ **Gurutze Gorria:** 674888
- ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
- ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitza autobus.: 948 221015
- ▶ **Taxia:** 670420
- ▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

- ▶ **Ertzaintza:** 538820
- ▶ **Tolosa-Udaltzaingoa:** 675858
- ▶ **Tolargi:** 650016
- ▶ **Iurrumendi egoitza:** 670325
- ▶ **Tolosa gasa:** 675320

LEITZA ▶ PILOTA

Pilota Eskolakoek bost partidetatik hiru irabazi dituzte

Aurreikusita zeuden 6 partidetatik azkenean 5 besterik ez zituzten jokatu, zenbait partaideren ondoeza zela-eta

NAIARA GARZIA

Atzo, goizeko 10:00etan hasi zuten Nafar Jokuen Txapelketa Leitzako Amazabal Pilotalekuan. 6 ziren jokatu beharreko partidak, baina bat bertan behera utzi zuten, pilotari bat ondoezik zegoelako. Beraz, azkenean 5 partida jokatu zituzten goiz osoan zehar.

Lehenengoan, hasi berrieta 3. mailakoak aritu ziren. Aurrerako Iker Sagastibeltza eta Iosu Zabaleta Mendillorriko Pablo Lizaraga Guerra eta Ander Iriarte Ariztegiren aurka, eta 18-2 irabazi zuten. Bigarren partidaren ere, hasi berriak aritu ziren, 3. mailakoak. Ibai Azurmendi eta Julen Goikoetxeak 18 tanto egin zituzten. Paz de Zigandako Mikel Jara Sorbetek eta Aritz Oroz Abaurreak galduta zuten partida, 3 tantorekin.

Herriko sena

Leitza Aurrera Pilota Eskolan alebinitan hiru maila ezberdin daude. «Maila ona daukagu, eta pilotariak beraien artean parekatzen saiatzen gara», dio Patxi Sagastibeltzak, antolatzailerako batek. «Hasi berrien 3. mailan, kanpotik etortzen direnean ez dakite pilota zer den. Hemen herrian, berriz, bakoitzak badu sena berezi



Joxerra Aldaregia eta Xabi Jaunarenaren partida. N. GARZIA

bat, gero gehiago edo gutxiagotuzten dutena».

Bi partida hauek jokatu ondoren, bestea bertan behera hutsi zuten, eta hirugarrena hasteko zain zeudela denak pilotari ekin zioten, antolatzailerak, gurasoak, eta pilotari gazteak, txapelketa ustekabean girotu. Bertan behera gelditutako partida, Oinatz Mariezkurrena eta Iñaki Saralegik Hobearenako pilotarien aurka jokatu beharrekoa, 18-0 gelditu zen markagailuan.

Lehenengo bi partidak Aurrerako pilotariak irabazi bazi-

tuzten ere, ez zuten horrenbeste zorrikeri izan azkeneko bietan. Mikel Onsaldo eta Xabier Erasok galduta egin zuten burlatzen aurka, 18-5. Joxerra Aldaregiak eta Xabi Jaunarenak, 6 tanto lortu zituzten, eta hauen aurkariek, burlatarrak, 18.

Azkeneko partida Aurrerako kideen artean jokatu zen osorik, hasi berrien lehenengo mailakoa. Anartz Olano eta Mikel Sagastibeltza Egües Jon Iparra eta Mikel Sagastibeltza Lasarteren aurka gailendu ziren, eta markagailua 18-10 gelditu zen, lehenengoan alde.

AMEZKETA ▶

Oraindik ez dakite Irati Mujikaren egoera legala

Ostiral eguerdian atxilotu eta gauean aske utzi zuen Polizia Nazionalak

ERREDAKZIOA

Ostiralean, Iruñean atxilotu zituzten 6 gazteen artean, Irati Mujika amezketarra ere atxilotu zuten. Hori dela eta, Atxilotetak salatzen, elkarretaraztea egin zuten ostiralean herritarrek. Guztira, 50 lagunetatik gora bildu ziren Amezketako plazan iluntzeko 20:30ean. *Presoak askatu, utzi bakean euskal gazteria* lelopean.

«Aske utzi zuten arte ez genuen inolako informaziorik izan», adierazi du Amezketako ezker abertzaleko kide batek. «Eguerdian atxilotu zituzten, eta arratsaldean familiak dei bat jaso zuten. Polizia Nazionala zen, Iratiri kolaborazioa leporatzen zietela azalduz».

Gauean, Irati Mujikak gurasoei deitu zien, aske zegoela esanez. Bere familiak adierazi duenez, «ez dakigu oraingoz bere egoera legala zein den. Hurrengo astean abokatuak zer bait jakingo duela espero dugu».

Espainiako Gobernuaren Nafarroako Ordezkaritzaren arabera, ostiralean Segik deitutako Borroka Eguna zela eta Iruñeko udaltxean indarrez sartzen saiatu zirelako atxilotu zituzten 6 gazteak.

POLITIKA ▶



Iñaki de Juanaren aldeko konzentrazioak, Adunan eta Villabonan

Erredakzioa ▶ Iñaki de Juana Chaos berriz ere gose greban dagoe-la ikusirik, «bere askatasuna exijitzeko» herenegun konzentrazioak egin zituzten. Adunan 13 lagun bildu ziren, eta hurrengo ostiralean ere bilduko direla azaldu dute, 20:00etan. Villabonan, berriz,

bilera egin zuten iluntzean, Kale Berrian. 90 pertsona inguru bildu ziren orotara. «Iñaki de Juanaren egoera salatzen eta berehalako askatasuna eskatzeko», ostiralero bilduko dira, Adunan bezalaxe, Villabonan, ordu berean. HITZA

AMASA ▶ PILOTA



Finalaurrera
nor joan
erabakiz

M.Soroa ▶ Ezker Hormako I. Emakumea Pilotari Txapelketak 9. jardunaldia burutu zuen atzokoan Amasako pilotalekuan. Norvehiagoka bizia eta sutua izan zen ezbairik gabe, azken unerarte itxaron beharra izan baitzen datorren asteburuan finalaurrea nork jokatuko duen jakiteko. Jokalarien arteko maila ezberdintasuna nabaria izan arren, partida bi-ziak eta tanto ikusgarriak ikusi ahal izan ziren emakume pilotarien eskutik. Erredakzio hau iterako partidak amaitu gabe zeuden oraindik. **MADDI SOROA**

TOLOSA ▶

Beroaren
eraginik ez
azokako
produktuetan

Eskaintza zabala eta berrikuntza gisa gazta berriak nagusi, salmenta postuetan

PABLO ALBERDI

Egun hauetako beroak ez du oraindik eraginik izan azokako produktuetan. Dirudie-nez, mendia oraindik neguko geldieran dago, eta urte sa-soi honetan landareak ondo eusten diote ur gabeziari. Udaberrian, edo are gehiago udaran, ikusi egin beharko dugu zer nolako eraginak dauzkan egun hauetako le-horteak.

Azokako produktuei dago-kionez, eskaintza oso zabala izan zen eta egon zen berri-kuntzarik ere. Aurtengo lehe-nengo gazta berriak ikusi ge-nituen postu batzuetan. Diru-dienez Zuberoako artzainen kooperatiba batek egindako-ak dira, eta 19 euro kiloko saldu ziren.

Barazki zerrenda ere oso zabala izan zen. Eguzkia dela eta, produktu batzuen kalita-teak eta batez ere tamainak izugarri egin dute gora azke-naldian.

AZOKA ▶

Prezioak	merk.	gares.
Berdura plaza		
Azalea	5,00	8,00
Erromeroa	4,00	6,00
Xarbota	4,00	6,00
Salbia	1,00	1,20

Bertako produktak		
Porrua	1,00	10,00
Txikoria	1,00	1,25
Arraultzak	1,30	2,10
Ardi gazta	14,00	18,00

Produktu ekologikoak		
Kalabaza	1,60	3,04
Aza	2,50	3,00
Mermelada	3,00	3,60
Barabuxria	1,60	6,00

AMEZKETA ▶ ERREMONTEA

Ezinak garaitu zituen Altuna eta Urrutia bikotea finalean

40-24 emaitzarekin galdu zuten; San Miguel gaztearen sake bortitzari eta Ezkurraren tantoa amaitzeko abileziari ezin izan zioten aurre egin

MADDI SOROA

Imanol Altunak eta Urrutia bikoteak ezin izan zuten Binakako Faustino Erremonte Txapelketako txapelik eskuratu. San Miguelen sake bortitzak eta Ezkurrak tantoak amaitzeko zuten segurtasunak ezinean utzi baitzituen Amezketarra eta bikotea.

Ondo ekin zion partidari Amezketararak, irabaziz eta joko ona eginez. 9 tantoren atzetik, ordea, San Miguel gaztea esnatu eta arrapaladan sakatzen hasi zen, baita asmatzen ere. Ezkurra berak ere, txukun egin zituen lanak tanto bakoitza segurtasunez amaituz eta goi mailako jokalaria dela erakutsiz. Altuna I.a eta Urrutia, berriz, tokiz kanpo baleude bezala agertu ziren partidaren zehar, desagertuta, urdu-ri eta asko galduaz. Markagailuak 40-24 zioen, jokalarien aurpegiak, berriz, ezina.

Partida amaieran amezketa-rrak egindako adierazpenen arabera «partida puskatu di-gute eta ezinean egon gara». Era berean, «sartzen saiatu gara baina agian arinegi aritu-gara, beraiek dominatu baikai-tuzte» adierazi zuen Altunak. Amaitu aurretik, ordea, eta bere umiltasuna beste behin



Ezkurra eta San Miguel garaipena ospatzen. Ondoan, Altuna eta Urrutia, partida amaitu ostean. **A.P.**

ere baieztatuz aurkariek «partida handia» egin zutela eta «zoriondu beharrean gaude-la» adierazi zuen.

Garaipena eskuratu ez badu ere, «finala jokatzea niretzat opari bat bezala» dela adierazi zuen herenegun amezketa-rrak. Txapela eskuratu gabe, baina, finalera iristek duen bidean ongi aritu denaren saria beti izango du Altuna I.ak.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Inkesta. Abian da jada Eskuzko Binakako Txapelketa. Abel Barriola, ordea, ez da bertan izango. Justua iruditzen al zaizu Barriola txapelketatik at geratzea? Eman zure iritzia.

iragarki laburrak ▶

LANA
Banatzaillea. Baserriko produktuk banatzeko banatzaille bat behar da. Interesatuak deitu 943 68 22 14ra.
Elektrikaria. Elektrikaria behar da Villabona inguruan, industrian lan egiteko. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 629 53 40 50.

Etzeko lanak. Emakume bat behar da etzeko lanak egiteko eta 15 eta 10 urteko bi gaztez arduratzeko. Deitu 656 76 64 39 zenbakira.
Lorezainak. Tolosaldeko enpresa batek lorezainak behar ditu. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 615 78 45 76ra.

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Irura. Udalak Landaingurruneko Etengabeko Ikaskuntza Heziketa Jardueren barruan bi ikastaro hauek eman nahi ditu herrian urtarrilaren edo otsailaren hasita: Euskal sukaldaritzaren sortzaile berria eta ordenagailu bidezko argazkigintza eta argazkukitua. Beraz, adin-nagusiko interesatuek udaletxean, liburutegian edota 943 69 13 33 telefono zenbakira deituz eman dezakete izena. Kultura.irura@udal.gipuzkoa.net helbidera idatziz ere egin dezakete urtarrilaren 19a baino lehen.

Ibarra. Euskara Zerbitzuak, urte berrian sartu garen honetan, 2007ko egutegiak argitaratu ditu nahi duen orok eskuratu ditzan. Interesatuek udaletxean eta Euskara Zerbitzuan jaso ditzakete doan honako orduetan: 09:00etatik 13:00etara.

Lizartza. Gariakoitz Ebeberriaren epaiketara, Pou-ra (Frantzia) joateko autobus antolatuta dituzte. Joan nahi duenak Tolosako Rakun edota Lizartzako hiru tabernetan eman dezakete izena.



Inauteri usainean haur danborrada prestatzen

TOLOSA ▶ Atzo izan zen Beleta elkarteak deituta haur danborradako lehen entsegua. 15:30etik aurrera, elkarteko kideak, 6 eta 10 urte bitarteko haurrak eta hauen gurasoak bildu ziren Musika Eskolan. Lehen kosakoen entsegu honetara hamalau neska animatu ziren arren, otsailaren 17an tren geltokitik aterako den haur danborradan

parte hartu nahi izanez gero, oraindik bada aukera izena emateko. Haur danborradaren eguna iritsi bitartean geratzen diren larunbatetan arratsalde guztietan elkartuko dira Musika Eskolan. Urtero bezala, inauteri egunean dena ondo aterada, gogotsu ariko dira abesti bakoitzari dago-kion dantza ikasten. **ENERITZ MAIZ**

margolariaren zeramika koadro lanak ikusgai daude, Tolosako Lanbroa tabernan.

ZINEMA

Leitza. Pedro Almodovarren *Volver* pelikula gaur izango da ikusgai, 19:30ean, zineman.

Tolosa. *Cristobal Molon* gazteboei zuzenduriko filma gaur Leidorren, 17:00etan.

Tolosa. *El perfume* filma gaur Leidorren, 19:30ean.

Tolosa. *El perfume* filma bihar Leidorren, 20:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Ibarra. Ugarte, M. T. Euskal Herria 46. 943 67 32 74.
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.

Bihar
Goizueta. Apeztebea, L.M. Kale Nagusia, 64. 112.
Tolosa. Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. 943 67 51 16.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Hitzak hegan* (errepiikapena).
 ▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ERAKUSKETAK

Alegia. Ana Jesus Ansorena margolariaren zeramika koadro lanak daude ikusgai, jubilatuen tabernan. Gaur izango da erakusketa ikus ahal izateko azken eguna.

Tolosa. Maria Jose Rekalde eskulturagilearen eskultura erakusketa Aranburun daude ikusgai hil honen 20ra arte.

Tolosa. Ana Jesus Ansorena


AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Ander Balerdi Sarasola (Amezketza).
 Bihar 2 urte. Zorionak ebekoen eta, balez ere, gurasoen partetik.



URTE ASKOAN
 Ioritz Gorriti Etxegoien (Tolosa).
 Bihar 3 urte. Zorionak aitona-amonen eta osaba-izeben partetik.



URTE ASKOAN
 Eloy Iglesias (Ibarra). Gaur 10 urte. Zorionak zure arreba Zuriñe eta Irebe lehengusuren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAREN egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAREN egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

FOTO depilazioa

Shuyana Edergintza
 Eskolapietako Lorategi, 3 - 1A
 TOLOSA • Tel.: 943 67 54 89

Bizkar osoa saioa 180€

Hanka osoak + izterondoak 250€*

Promozio Berezia 1/15etik 2/15era

*Balokoi prezioa gehienez 4 saiotarako kontratatuta